

**Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1926'ko Otsaila'  
ren 19'an.**

Aurreko agerian aipatzen diran euskaltzain berak batzarrera datoz. Azkue maipuruak araudiko otoitza egin du.

I.—Lakonbe jaunak Intxauspe'k Bonaparte'ri egin-dako ezkutitzen irakurpena jaraitu du. Euskaltzain-diaren erabakia: bere *Euskera'n* argitaratuko ditu, euskal-mintzaeraz zerbait dasaten ezkutitzak.

II.—Azkue jaunak irakuri du, oraintsu berak idatzi duen irakurgaya, *Latsibi* izenekoa.

III.—Eguskitza jaunak irakuri digu bere lan bat: -tzaz, -taz, -zaz atzizkiak gai artu-ta. Esan digu ugarri dirala atsizki abek erderazko *materia de que se trata* ikurpenez, Maizter'en idazkietan.

IV.—Aita Intza'k Iztegirako itz batzuek dakarzki: edo Azkue'nak dakañenen beste ikurpenez erabiltzen diralako; edo Azkue'nak ez dituelako. Euskaltzaindiak aitzakotzat artu ta Iztegi berirako jaso ditu.

V.—Euskaltzaindiak erabagi du: *Amerizar* edo *amarar* erdaldunak darabilen itzaren ikurpenez, *Uretaratu* euskeraz esan bear dala.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzar-aldia.

---

**Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Epai-  
la'ren 25'an.**

Egun ontan batzaraldira euskaltzain abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeretxe, Eguskitza, Olabide, Lakonbe, euskaltzain-ordeko Oleaga eta Ormaetxea eta Bähr urgazlea.